

3 Astigarragako AEK euskaltegiak bere panpina edo maskota du:

Babaxi babarrun morea. Abesti bat ere badu Babaxik. Panpina, abestia, abestiaren letra... taldean egin dituzte euskaltegian, irakasleen eta ikasleen artean. Eta gu bertako irakasle den Andoni Tolosarekin, Morau abeslariarekin, Babaxiz hitz egitera joan gara. Baina beste gai batzuk ere izan ditugu hizpide.

HABE.- Azalduko al didak nola sortu zen Babaxi?

ANDONI TOLOSA.- Ikusi genian euskaltegiak indar gutxi zuela kalean. Kontuan hartu behar da Astigarraga oso herri txikia dela, eta euskaldun kopuru handia dagoela, %60a edo azken **errodaren** arabera. Urtean euskaltegirik gabe egon gaituk, eta bazeramazkiagu bospasei urte edo hainbat talderekin berriro. Beraz, horixe nahi genian: euskaltegiak indarra izatea kalean eta betiko diskurtsoa "euskara beharrezkoa da..." horren orde, beste elementu

Andoni Tolosa, Morau



Ikasle guztien partaidetza

H.- Babaxik bere abestia dik CD formatoan (Gaztelupeko Hotsak). Musika hik jarritakoa duk; letraren ostean jarritakoa?

A.T.- Ez. Aurrena "kantu zero bat" grabatu genian, "la, ra, la, ra" eginez, letrarik gabe. Eta horren gainean talde bakoitzak osatu zian

A.T.- Sortzerakoan bai, baina gero entzun egin diagu besterik gabe. Bestela *hutsuneak bete* teknika erabiltzen diagu normalean. letren gainean lan egin. Adibidez, azpi-taldeak egin eta bakoitzari estrofa bat emanez... Baina gaur egungo ikasleek musika entzuten ditek, eta entzundako musikari buruz galderak egiten zizkidatek, eta

"Astigarragan sagarra duk guztien sinboloa,

bat sortzea, herriak esateko Babaxi=euskara=AEK.

H.- Mattin marrazkilariak egin dik Babaxi, ezta?

A.T.- Hainbat proposamen egin zizkian, eta azkenean euskaltegian babarrun morea aukeratu genian, Babaxi. Galdetzen zigutek zergatik ez sagar bat, Astigarragan gaudenez... Ba, beste guztiek dutelako sagarra...

H.- Eta izenarena?

A.T.- Mattinek proposatu zian izena, baina euskaltegian lehiaketa bat antolatu genian.

"Kantu bat asko gustatuz gero, buruz ikasten diate ikasleek"

kanta, eta aitzakia horrekin afari bat antolatu genian, eta talde bakoitzak bere abestia kantatu zian. Eta hiru kantuekin bakarra osatu gero. Ondoren asteburu batean bildu gintuan musikariak, teknikariak, eta azkenerako utzi genian ahotsak grabatzeko lana. Ikasle guztiak Leizarango baserri batera eraman, lagun baten estudioa, eta listo!

H.- Zenbat kopia atera dituzue?

A.T.- Ehun, berrogeita hamar ikasleen artean **banatzeko** eta beste hainbeste herrian banatzeko. Matrikulazio-kanpaina hasi zenean diskoa bidali genian.

H.- Sortu duzue kanta, eta gero ze erabilera izan dik euskaltegian?

saiatzen nauk musika hori gelara ekartzen, kantu jakin batzuk... **Landu**, eta kantatu... Edo kantatu **soilik**. **Ze**, esaterako, **Izarren Hautsa** lantzen baduk hitzez hitz hil egiten dituk.

H.- Nesken eta mutilen gustuak ezberdinak dituk.

A.T.- Ez zekiat ze esan. Sumatzen diat normalean neskek eskatzen dituztela kantuak. Aizu, "Mikel Markezen ez zekiat ze kantu... Atzo, Mikel Urdangarinen kantu hau..." Eta beste askotan **adi egotea** duk... Nik normalean irratia piztuta izaten diat gelan, beste ariketak egiten ari garen bitartean, irradi euskaldunen bat, eta interferentziarik sortzen ez duen

bitartean, eta bat-batean sortzen duk... "aizu, eta kantu hori?"... Bere interesgunetik abiatzeko modua duk. Ze kantuetan diagun arazoetako bat duk erraz zaharkitzen direla. Bazeudek kantu klasikoak, betikoak, *Izarren hautsa*, *Lau teilatu*, beti landuko direnak. Baina adibidez, gaur egun *Behin batian Loiolan* lantzea... ez zaidak iruditzen, nahiz eta bere garaian izan kristona... Gero argi izan behar duk zein den hire gustua eta zein ikasleena... Erdibide bat **aukeratzea**... Nire taldekoek gehiago maite dizkiate ni baino kantautore melodikoagoak...

H.- Beraz, abestiaren letrari garrantzi handia ematen ziotek.
A.T.- Hala duk. Beren arazoa duk: "kantu hau asko gustatzen zait eta gustatuko litzaidake jakitea **zehatz-mehatz zer dioen**".

H.- Eta ikasleen artean sumatu duk abestien letrak ikasteko **joera**?
A.T.- Bai. Bai. Asko gustatzen

Hernaniko euskaltegian, Leitzako barnetegian, Zaldibian, Egian, Tolosan... Eta Lasartetik ere deitu zidaan talde batek. lanen bat ari hituen egiten, eta lan horren barruan niri elkarrizketa bat egin nahi zidatela.

ETB1eko Sorginen Laratza saioan Morauren kantu bat entzun daiteke

H.- Azken maxi-singlean *kantu galduak* horretan ez dituk letrak sartu konpaktoan.

A.T.- Eta damutzen nauk.

H.- Beste hire kantu bat ere, zati bat, ia egunero entzuten diagu ETB1eko Sorginen Laratza saioan, "Ez gaude konforme!" gazteentzako atalean: *Guk mundua aldatuko dugu* kantua. Kantuak zio "Ni naiz guai, nere lagunak guai dira, nere lagunak ez direnak, horiek ez dira inolaz ere guai..." Kantu hori nola sortu huen?

-eztabaidarik... *Ni hi baino ezkertiarra goa nauk*... hori zuan azkenean dena... Eta esatea *gure ideiak dituk onenak gu garelako*, eta hor ez duk eztabaidarik ametitzen. Eta hori ezin nian eraman, eta horrela sortu nian kantua. Askotan gazteak, ni ez nauk hain gaztea baina, hain iraultzaile eta hain gorri eta **aurrerakoi**, azkenean erortzen gaituk geure gurasoen jarrera sektario **berdintsuetan**: "gure ideiak dira onak geureak direlako". Hori zuan jarrera, irratia egon zuan ia bi urte aireratu gabe, eta orain zorionez, indarberrituta zebilek. Kantua giro horretan sortu nian, baina kantu irekia duk, norberak bere **eskarmentuari** lotzeko modukoa. Kantuan azaltzen den pentsakera, zoritxarrez, indarrean zego gaur egun. Eta ez nauk besteei buruz ari, gutaz ari nauk.

H.- Gustatzen al zaik Sorginen Laratza?

A.T.- Euskitze bai. Saioaren formula ez, gata eta piperra falta zaiok, eta Klaudio Landa ez diat agoantatzen. Esaten diat, ez diat gehiegitan ikusten ere.

guk babarruna aukeratu diagu"

bazaie, bai. Bazegok neska bat Mikel Markezekin itsututa dagoena... ez duk bakarrik letra ikastea, duk denon artean kantatu, lotsa **gainditu** piska bat...

Andoni Tolosa, Morauren euskaltegi askotan izan da

H.- Gitarra ekartzen duk euskaltegira?
A.T.- Neure kantuak jotzeko batez ere. Oso kantu gutxi zekizkiat beste abeslarirenak. Bestalde, euskaltegi askotan jo izan diat. Batzuetan euskaltegiari begira antolatutako jaialdietan, bestetan erdi-euskaltegira erdi-kanpora zuzendutako emanaldietan... Oreretako Xenpelar euskaltegian,

A.T.- **Liskar** handi batetik sortutako kantua duk. Hernanin bazegok irratia libre bat, Molotov Irratia, eta garai batean sekulako iskanbila sortu zuan barruan. Iskanbila horren barruan azkenerako guztia irrazionala zuan, ez zegoan ez eztabaida ideolojikorik, ez jarrera-

